


# Diru sarrerak



Zerbitzua bera paregabea den arren, prezio egokia bilatzea ez da lan erraza. Bezeroa ordaintzeko prest egongo denak eta guk nahiko genukeen prezioek bat egin behar dute. Hori dela eta, bezeroa bi taldetan banatuta dagoenez gero, zerbitzuaren prezioa ibilgailuaren arabera edo multzoaren arabera finkatzen da.


Eskainitako zerbitzuarekin bezeroa gustura egongo da, baina ezin zaio prezio altuegia jarri horrelako aplikazio bat erabiltzeari. Gure iritziz preziorik egokiena da, bai bezeroaren baita enpresaren ikuspegitik ere. Ibilgailu hibrido eta elektrikoek hileroko 2,99€ ordaindu beharko dute zerbitzua erabiltzeagatik.

Gasolina, gasoil eta bestelakoekin funtzionatzen duten ibilgailuek, aldiz, prezio altuxegoa, 4,99€-koa hain zuzen ere.

Behin eta berriz adierazten ari garen moduan, garbi ikusten da enpresa honek energia berriztagarri eta ibilgailu hauengatik egiten duen apustua. Gure helburu nagusia kontsumitzaileak dituzten beharrak asetzeari diren arren, helburutzat dugun beste faktorea gure ingurumena da, eta horregatik erraztasunak izango dituzte aplikazioa erabiltzeko honelako ibilgailuak dituztenei. Hau izen-ematean erregistratu beharko da, matrikularekin batera. Iruzurra egitea ezinezkoa izango da, oztopoz gainezka egongo baita. Badakigu hasiera batean elektrikoek eta hibridoek parte-hartzea eskasa izango dela, besteak beste, hauen kopurua ez delako guk nahi bestekoa. Baina itxaropena dugu egunen batean berdindu eta bestelako ibilgailuak bezain beste izatea hauek.

Beste enpresei ere lagundu nahi genieke, iragarkiak txertatuz adibidez. Horrenbestez, diru iturria izango da, baita ere, aplikazioko iragarki ezberdinak. Iragarki bakoitzarekin eztabaidatuko dugu bakoitzaren prezioa eta tarifa ezberdinak.

# Diru sarrerak



Hau bezeroen eta iragarkien kopuruaren arabera izango da; halere, gutxi gorabehera, asteko bost euro asteko prezioa izango du gure aplikazioan enpresa baten iragarkia azaltzeak. Proiektuak aurrera jarraitu eta eta emaitza positiboak ikustean, udalari ideia ona irudituko zaiolakoan gaude. Hartara haiek kexa gutxiago jasoko dituzte aparkalekuengatik, eta guk trukean, diru-laguntzak jasoko ditugu.

Ordaintzeko hainbat bide izango ditugu. Besteak beste, transferentzia bidez, Pay Pal erabiliaz, txartelarekin, Google Pay, Apple Pay... Hau oso eroso da automatikoki ordaindu eta aplikazioa arazorik gabe erabiltzen jarraitu ahal izateko.

Hilabeteka ordaindu beharko da aplikazioaren erabilera. Aplikazioaren behe-aldean atal bat egongo da ordainketa egin ahal izateko, bai aplikazioa erabiltzearena baita aparkatzeagatik ere.

KONTZEPTUA	DIRU-SARRERAK (1. HILABETEA)	%
Ibilgailu elektriko eta hibridoen tarifa (2,99€)	800x2,99= 2.392€	6,8
Gasolina eta diesel ibilgailuak (4,99€)	5700x4,99= 28.423€	80,5
Aplikazioko iragarkiak	300x5= 1.500€	4,3
Udaleko diru-laguntza	3.000€	8,4
<b>DENERA</b>	<b>35.315€</b>	

